



TERMINOLOGIA BATZORDEA

2008ko Jarduketa-plana

Donostia, 2008ko otsailaren 25a

Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea

Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea¹

Helburua: aurretik identifikatuta daudenak berrikusi eta berretsi edo berriak proposatzea.

Deskribapena: terminologiaren maila desberdinetan (teknolektoak edo espezialitateko eremuak, eguneroko bizitzako hainbat eremu eta Administrazio eta Zuzenbidea) euskaraz egin beharreko lanak, dauden hutsuneak, aztertu beharreko erabileremuak eta horien artean dauden premiak eta lehentasunak detektatu behar dira.

Orain arte ezarritako lehentasunak: Irakaskuntza —bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitate-maila (enpresa-mundua)—; teknologia berriak; hizkuntza-paisaia: ekonomi jarduerak, errepideetako erroterak, toki publikoetako kartelak eta produktuen eta tresnen etiketak, jatetxeen menuak...; artea eta herri-administrazioa.

Oharra: Urtez urteko jarduketaren berrikusi eta jasoko dira.

Data: 2008ko martxoaren bukaera

¹ Ikus 17. orrialdea

Terminologiako lanetarako irizpideak proposatzea

Terminologia-lanetarako irizpideak finkatzea

Helburua: aurretik finkatutakoak berrikusi eta berretsi edo berriak proposatzea.

Deskibapena: terminologia-lana behar bezala egiteko, eta bereziki normalizazioari begira, nahitaezkoa da irizpideak finkatzea eta modu sistematikoan aplikatzea, normalizatzaileen subjektibotasunari ahalik eta lekurik txikiena utzirik. Terminoak onartzeko, baztertzeko eta termino berriak (neonimoak) sortzeko eta batez ere erabakien koherentzia mantentzeko, irizpide zehatzak eta ondo oinarrituak definitu eta idatziz eman behar dira. Dena den, nozioak aldatu eta egokitzen diren neurrian irizpideok ere aldatu beharko dira. Terminoak normalizatzeko orduan maila desberdinak hartu behar dira kontuan (ikus I. eranskina).

Onetsitakoak:

1. Irizpide **linguistikoak** (Hiztegi Batuan oinarrituak), **terminologikoak** eta **soziolinguintistikoak/pragmalinguintistikoak** (ikus I. eranskina)
2. **Maileguen eta kalkoen** gaineko irizpideak (ikus II. eranskina)
3. **Neologia-sorkuntza (Terminologia-arazoen Inbentarioan** jaso dira horren inguruan dauden zailtasunak; ikus III. eranskina):
 1. Eratorpena (euskaraz oso baliabide emankorra): aurrizkien eta atzizkien erabilera zehatza eta bereiztua aztertu eta finkatu behar da terminologian aplikatzeko.
 2. Hitz-elkarketa (oso erabilia): baliabide honen mugak aztertu eta kasu desberdinak sailkatu behar dira; adjektibo erreferentzialak nola eman ...
4. **Normalizazio-txostenaren** ereduak, arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan erabiltzeko. (Ikus IV. eranskina)

Oharra: irizpideak eta gainerakoak etengabe (lanak onesteaz batera) berrikusi eta eguneratu behar dira; beraz, aipatutako dokumentuak irekiak dira. Dokumentu eguneratuak www.euskara.euskadi.net web gunean argitaratuko dira. Arazo linguistikoen gaineko zalantzak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio.

Data: 2008ko martxoaren bukaera

Kontzeptu bakarria izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehentasunak ezartzea

Sinonimoei ponderazio-markak finkatzea

Helburua: ponderazio-markak terminologia-lan guztietan modu sistematikoan erabiltzea.

Deskribapena: Terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa ematea du helburu. Horrela, erabiltzaileek terminoak aukeratzeko orduan kontuan izan beharko dute informazio hori.

Onetsitakoa:

0. Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
1. Termino erabilia (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
2. Termino proposatua (adituek proposatua baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)
3. **Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)**
4. **Termino normalizatua/gomendatua**

Oharra: erabiltzaileei eman beharreko informazioaren ondorioetarako 3 eta 4 dira argitara ematen diren ponderazio-markak; gainerakoak, terminologoentzako tresna dira, bereziki.

Data: etengabe, epe-mugarik gabe.

Egindako terminologia-lanak onartzea (1)

Egindako terminologia-lanak onartzea

Helburua: aurreko jarduketa-planaren barruan egindako lanei onespena ematea. Hemen kontuan hartzen dira, baita ere, Terminologia Batzordetik kanpo egindako lan terminologikoak, EUSKALTERMen txertatuko direnak, alegia (ikus txosten honen 5. or.).

Deskribapena: euskal terminologiaren lan-plangintzaren arabera, egindako terminologia-lanak ad hoc osatutako batzorde teknikoek aztertu eta landu ondoren, Terminologia Batzordeak onartu behar ditu.

Metodologia eta lan-prozedura: pilatutako hiztegiak asko direnez, bi proposamen egiten ditugu:

1. Jorratutako arlo guztietako hiztegiak, modu orekatuan eta proportzionatuan, lehenestea.
2. Terminologia Batzordeak, bakar-bakarrik, batzorde teknikoek antzemandako arazoak tratatzea eta erabakitzea.

Bileren maiztasuna: lortu nahi diren helburuak erdiesteko, beharrezkoa izango da Terminologia Batzordea hilabete eta erdiz behin biltzea. Batzordekideek alde zuretik jakingo dute zein den hurrengo bilerarako prestatu beharreko lana; beraz, kideren batek bileraren batera joaterik ez balu bere ekarpena alde zuretik bidaliko du posta elektronikoz.

→ **Terminologia Batzordeak 2008an onartu behar dituen hiztegiak** (lehenetasun bat proposatzen da):

Hizkuntza-paisaia: Merkataritza eta Kontsumoa (ekonomi jarduera)

- *Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia* (TB hasi zen hau aztertzen, beraz amaitu behar du).
- *Hipermerkatuetako produktuen hiztegia; Kirol-materialen hiztegia; Merkataritza-guneetako errotuluen hiztegia; Bulego-materialen hiztegia.*
- *Arropa-dendetako hiztegia; Oinetakoen hiztegia; Norbere irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika hiztegia.*
- *Elektrizitate-dendetako hiztegia; Altzarien hiztegia; Iturgintza hiztegia*

Data: 2008ko maiatzaren bukaera

- *Turismo hiztegia*
- *Errotuluen hiztegia; Lanbideen hiztegia*

Data: 2008ko uztailaren 1. hamabostaldia

Bestelakoak:

- *Laburtzapenen hiztegia*
- Kanpotik etorritako eskariak:
 - *Ingurumen hiztegia* (Ingurumen Sailak enkargatua; aspaldian amaitu zen eta lehenbailehen onartu behar du Terminologia Batzordeak eta EUSKALTERMen integratu).
 - *Soziolinguistika hiztegia* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enkargatua, euskal soziolinguistikan erabiltzeko; lehenbailehen onartu behar du Terminologia Batzordeak eta EUSKALTERMen integratu)

Data: 2008ko uztailaren 1. hamabostaldia

Egindako terminologia-lanak onartzea (2)

Herri-administrazioa

- *Toki Administrazioaren hiztegia*
- *Datu-babesari buruzko hiztegia*

Data: irailaren bukaera

Irakaskuntza (Lanbide Heziketa, Enpresa)

- *Zenbakizko Kontrolaren hiztegia*
- *Makina-erremintaren hiztegia*
- *Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinu hiztegia*
- *Automobilen mantentzearen hiztegia*

Data: azaroaren lehen hamabostaldia

Teknologia Berriak (Informatika)

- *Bulegotika hiztegia*
- *Hizkuntza Teknologien hiztegia*

Data: abenduaren amaiera

Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea

Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea

Helburua: Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak zabaltu behar dira eta erabiltzaile estrategikoengana iritsarazi.

Deskribapena:

- 2008an normalizatutako terminologia-lanen argitalpena eta zabalkundea egin: EUSKALTERM, CDak, paperezko formatua...

- Kartelak, foiletoak eta zabalkunde masiboa egiteko erabiltzen diren bestelako formatuak: landutako eremuaren arabera, erabiltzaileak identifikatu (okindegiak, jatetxe, taberna eta kafetegiak, makina-erremintako enpresak, Lanbide Heziketako eskolak, hirugarren sektoreko enpresak, kirol-federazioak, kirol-elkarteak...)

Oharra: Zabalkunde masiboa egiten denean gutun batekin batera bidali beharko da onetsitako terminologia erabiltzeko gomendio formala eginez.

Data: 2008an zehar, lanak onartu ahala

Erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren ebaluazioa

Helburua: Terminologia Batzordeak gomendatutako terminologiaren ezarpen-maila ezagutzea.

Deskribapena:

Beharrezkoa da aztertzea eta ezagutzea Terminologia Batzordeak onetsitako terminoen arrakasta-maila:

- Gomendatutako terminologiaren aurrean terminologia-erabiltzaileek duten jarrera eta erreakzioak ezagutzeko.
- Erabiltzaileek TBk gomendatutako terminoak onartzen ez dituztenean, beste termino batzuk proposatzeko.
- Finkatutako terminologia behar bezala eta modu egokian zabaldu den ala ez jakiteko.

Proposamena:

- Galdetegiak prestatu eta erabiltzaileen eskuetan jarri (espresuki bidaliak edota EUSKALTERMen bertan jarritakoak).
- Terminoen erabileraren jarraipena egiteko azterketa zehatzak eta puntualak egin.

Data: 2008aren abendutik aurrera

Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea

Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea

Helburua: 2008an egin beharreko lan berriak proposatzea.

Deskribapena: onartutako lehentasunak kontuan izanda, landu beharreko eremuen proposamena egin behar da.

2008an egitekoak:

- Batzorde teknikoak antolatu:

- *Toki administrazioaren hiztegia* **Data:** 2008ko apirilaren hasiera (abian jarri)
- *Musika hiztegia* **Data:** 2008ko apirilaren hasiera (abian jarri)
- *Datu-babesari buruzko hiztegia* **Data:** ekainaren hasiera (abian jarri)
- *Makina-erremintaren hiztegia; Automobilien mantentzearen hiztegia* **Data:** ekainaren hasiera (abian jarri)
- *Lanbideen hiztegia eta Errotuluen hiztegia* **Data:** 2008ko uztailaren hasiera (abian jarri)
- *Hizkuntzen Teknologien hiztegia* **Data:** 2008ko irailaren erdialdea (abian jarri)
- Fitxa eguneratuak: *Zuzenbide Zibila, Zuzenbide prozesala, Gizarte-lana eta Zigor Zuzenbidea* **Data:** urriaren amaiera (abian jarri)

- Hiztegi berriak egin²:

- *Telefonia hiztegia* (eskuko telefonoen menuak euskaraz jarriko baitira) **Data:** 2008ko azaroaren bukaera.
- *Herri Ogasunaren hiztegia* sakondu (400-500 kontzeptu berri sartu) **Data:** 2008ko abenduaren bukaera.
- *Azoka, kongresu eta jendaurreko ikuskizunetarako hiztegia* **Data:** 2008ko abenduaren bukaera.
- *Ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen sailkapena* (Osasunaren Munduko Erakundearena) antolatu hiztegia egiteko **Data:** 2008ko abenduaren bukaera

² EUSKALTERM eguneratzeko eta elikatzeko lanen barruan kokatzen dira lanak.

TERMINOLOGIA BATZORDEA

2008ko jarduketa-plana: lanak eta epe-mugak

EGIN BEHARREKO LANAK	EPE-MUGA
Terminologia-arloko lehenetasunak ezarri	Martxoaren bukaera
Terminologia-lanetarako irizpideak berretsi	Martxoaren bukaera
<p>Egindako terminologia lanak onartu: a. Hizkuntza-paisaia: merkataritza eta kontsumoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia</i> • <i>Hipermerkatuetako produktuen hiztegia; Kirol-materialen hiztegia; Merkataritza-guneetako errotuluen hiztegia; Bulego-materialen hiztegia.</i> • <i>Arropa-dendetako hiztegia; Oinetakoen hiztegia; Norbere irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika hiztegia</i> • <i>Elektrizitate-dendetako hiztegia; Altzarien hiztegia; Iturgintza hiztegia</i> • <i>Turismo hiztegia</i> • <i>Errotuluen hiztegia</i> 	<p>Maiatzaren bukaera</p> <p>Uztailaren 1. hamabostaldirako Uztailaren 1. hamabostaldia</p>
<p>b. Bestelakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Laburtzapenen hiztegia</i> <p>- Kanpotik etorritako eskariak</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ingurumen hiztegia</i> • <i>Soziolinguistika hiztegia</i> 	Uztailaren 1. hamabostaldia
<p>c. Herri-administrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Toki Administrazioaren hiztegia</i> • <i>Datu-babesari buruzko hiztegia</i> 	Irailaren bukaera
<p>d. Irakaskuntza (Lanbide Heziketa, Enpresa)</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Zenbakizko Kontrolaren hiztegi;</i> • <i>Makina-erremintaren hiztegia</i> • <i>Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinu hiztegia</i> • <i>Automobilen mantentzearen hiztegia</i> 	Azaroaren 1. hamabostaldia
<p>e. Teknologia Berriak (Informatika)</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Bulegotika hiztegia</i> • <i>Hizkuntza Teknologien hiztegia</i> 	Abenduaren bukaera

Terminologia-lanak zabaldu eta gomendatu	2008an zehar, lanak onartu ahala
Erabiltzaileekin harremanak eta gomendatutako terminoen ebaluazioa	Abendutik aurrera
Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planeari sartzeari buruzko egitekoak:	
1. Batzorde teknikoak antolatu	
- <i>Toki Administrazioaren hiztegia</i>	Apirilaren hasiera (abian jarri)
- <i>Musika Hiztegia</i>	Apirilaren hasiera (abian jarri)
- Datu-babesari buruzko hiztegia	Ekainaren hasiera (abian jarri)
- Makina-erremintaren hiztegia; Automobilen mantentzearen hiztegia	Ekainaren hasiera (abian jarri)
- <i>Lanbideen Hiztegia eta Errotuluen hiztegia</i>	Uztailaren hasiera (abian jarri)
- Hizkuntza Teknologien hiztegia	Irailaren erdialdea (abian jarri)
- Fitxa eguneratuak: <i>Zuzenbide Zibila, Zuzenbide Prozesala, Gizarte-Lana eta Zigor Zuzenbidea</i>	Urriaren amaiera (abian jarri)
2. Hiztegi berriak egin:	
- <i>Telefonia hiztegia</i>	Azaroaren bukaera
- <i>Herri Ogasunaren Hiztegia sakondu</i>	Abenduaren bukaera
- <i>Azoka, kongresu eta jendaurreko ikuskizunetarako hiztegia</i>	Abenduaren bukaera
- <i>Ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen sailkapena (Osasunaren Munduko Erakundearena) antolatu hiztegia egiteko</i>	Abenduaren bukaera

ATAL GEHIGARRIA

2008ko lehentasunak finkatzeko orduan kontuan hartu behar da, honez gero landu diren eremuak, hau da EUSKALTERM eguneratzeko egin diren eta normalizazioaren zain dauden hiztegiak (ez dira aipatzen jarduketa-planean sartutakoak):

Hizkuntza-paisaia: Merkataritza eta kontsumoa (ekonomi jarduera)

- Garraio eta Logistikaren Hiztegia
- Banketxe eta Aurrezki Hiztegia

Irakaskuntza (LH, enpresa)

- Burdindegiko Hiztegia
- Papergintza, Ingurumen-kimika eta Paper-pasta Hiztegia
- Matematika (fitxak eguneratzea)
- Merkataritza eta Marketin hiztegia
- Gorputz Hezkuntzaren hiztegia
- Metalurgia hiztegia
- Elektronika eta Mikroelektronika Hiztegia
- Lan-segurtasuneko Hiztegia
- Kimika (fitxak eguneratu)
- Laborategia (fitxak eguneratu)
- Biokimika (fitxak eguneratu)
- Fisika (fitxak eguneratu)
- Psikologia (fitxak eguneratu)

Herri Administrazioa, Zuzenbidea

- Toki-administrazioaren Hiztegia
- Herri Ogasunaren hiztegia
- Gizarte-lana (fitxak eguneratu)
- Administrazio Zuzenbidea (fitxak eguneratu)
- Negoziazio Kolektiboko Hiztegia
- Administrazioarekiko Auzien Hiztegia
- Hauteskundearen Hiztegia
- Hirigintza (fitxak eguneratu)

Artea

- Museoetako Hiztegia

Bestelakoak

- Aseguruen hiztegia
- Saskibaloiz Hiztegia
- Eskubaloiz Hiztegia